



54/2018, de 2 de febrero

FORU AGUINDU

Euskera, Kultura eta Kirol Saila
Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua
Esp. Zk.: 18 ST12

Informazio publikoaren zati bat eskuratzea

2017ko abenduaren 26ko eskaera bidez, [REDACTED]
[REDACTED] eskatu zuen 2015/2016
denboraldiari buruzko informazio hau
eskuratzeko:

- Aldundiak dituen gastuak Karate, Taekwondo eta Boxeo federazioekin dagoen hitzarmenerako.
- Kirol erakundeei eta gurasoen elkarteei emaniko dirulaguntzak, ikasleek eskola kirolean (karate, taekwondo eta boxeo) parte hartzea lortzeko akuilu gisa.
- Zenbat ordaintzen zaien kirol erakundeei eta gurasoen elkarteei arte martzialak egiten dituzten eskola umeentzako kirol proiektuak sortu eta mantentzeko.
- Eskola kirolera bideratzen den edozein diru kopuru eta karate, taekwondo, boxeo eta kenporako aseguru polizak.
- Zenbat "gradu txartel" izapidetu dituen Karate Federazioak, FTAKen bidez.
- Eta zenbatek parte hartu duen eskola kirolean eta haien klasifikazioa.

Arlo honetako oinarritzko legea abenduaren 9ko 19/2013 Legea da, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa (GIPEGOL). Lege horrek haxe xedatzen du 13. artikuluan: "Informazio publikotzat jotzen dira titulu honetako subjektuek beren eginkizunetan sortu edo jaso eta beren esku dituzten edukiak eta dokumentuak, formatua edo euskarria

ORDEN FORAL

Departamento de Euskera, Cultura y Deporte
Servicio de Secretaria Técnica
Nº Expte.: 18 ST 12

Acceso parcial a la información pública.

Mediante solicitud de fecha 26 de diciembre de 2017, [REDACTED] solicita el acceso a la siguiente información referida a la temporada 2015/2016:

- Gastos que tiene Diputación destinados al convenio con la Federación de Karate, Taekwondo, Boxeo.
- Subvenciones dadas a las entidades deportivas y AMPAS como estímulo para lograr que sus alumnos participen en deporte escolar Karate, Taekwondo, Boxeo.
- Lo que se paga a las entidades deportivas y AMPAS por crear y mantener los proyectos deportivos para escolares que hacen artes marciales.
- Cualquier otra cantidad que se destine a deporte escolar, como pólizas de seguro para Karate, Taekwondo, Boxeo, Kenpo.
- El nº de "carnet de grado" que se han tramitado por la Federación de Karate a través de la FTAK.
- Y los participantes en el deporte escolar y clasificación.

La Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno (LTAIBG), como ley básica en la materia, en su artículo 13 dispone "que se entiende por información pública los contenidos o documentos, cualquiera que sea su formato o soporte, que obren en poder de alguno de los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de



gorabehera.”

Halaber, GIPEGOLEk mugak ezartzen dizkio informazio publikoa eskuratzeko eskubideari. Muga horiek kontuan ditu otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, 31. artikuluan ezartzen baitu informazio publikoa eskuratzeko eskubidea mugatu edo ukatu egingo dela oinarritzko legerian ezartzen diren arrazoiengatik eta bertan adierazten den moduan

Hizpide dugun eskaerari dagokionez, GIPEGOLEk 15. artikuluan ezartzen du kasu batzuetan datu pertsonalak babesteko beharrend onorioz mugak ezartzen zaizkiola informazio publikoa eskuratzeko eskubideari.

Eskatutako informazioaren zati batean, zehazki eskola kiroleko parte hartzaileen sailkapenei dagokienean, datu pertsonalak daude, hain zuzen pertsona fisikoen izen abizenak, zeinen bidez identifikatzen baitira edo identifika baitaitezke pertsona horiek.

Datu horiek ez ditu bereziki babesten datu pertsonalak babesteko lege organikoak 7. artikuluan, eta ez dira kasuan kasuko organo edo erakundearen antolaketa, funtzionamendu edo jarduera publikoari loturiko identifikazio datuak huts-hutsik. Beraz, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Kontseiluaren eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren arabera, informazioa eskuratzeko baimena eman ala ez erabakitzeke, GIPEGOLEk 15. artikulua 3. idatz zatian ezarritakoa aztertu eta kontuan hartu beharko da. Hau da, eskaera jaso duen organoak informazioa eskuratzeko baimendu edo ukatuko du, informazioa ezagutarazteak daukan interes publikoa eta eskatutako informazioan ageri diren datuen jabeen eskubideak (bereziki datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea) behar bezala aztertu eta kontuan hartuta.

Beraz, eskaera egiteko arrazoia ez denez eskubide bat baliatzea, edo ikertzaile izatea, eta

este título y que hayan sido elaborados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones.”

Establece también la LTAIBG límites al derecho de acceso a la información pública. Límites a los que la propia Norma Foral 1/2017, de 8 febrero, de Transparencia, Participación Ciudadana y Buen Gobierno del Sector Público del Territorio Histórico de Álava se remite cuando dispone en su artículo 31 que el derecho de acceso a la información pública se limitará o denegará por las causas y en los términos previstos en la legislación básica.

En lo que aquí interesa, la LTAIBG en su artículo 15 establece como límite que hace ceder el derecho al acceso a la información pública la protección de los datos de carácter personal

Parte de la información solicitada, en concreto la referente a las clasificaciones de los participantes en el deporte escolar, contiene datos de carácter personal, como son los nombres y apellidos de personas físicas, que las identifica o hace identificables.

Estos datos no son datos especialmente protegidos en los términos del artículo 7 de la LOPD, ni son datos meramente identificativos relacionados con la organización, el funcionamiento o la actividad pública del órgano o entidad correspondiente, por lo que, según el Consejo de Transparencia y Buen Gobierno y la Agencia Española de Protección de Datos, para dar o no acceso a la información habría que efectuar la ponderación prevista en el artículo 15 número 3 de la LTAIBG. Es decir, el órgano al que se dirige la solicitud concederá o no el acceso previa ponderación suficientemente razonada del interés público en la divulgación de la información y los derechos de los afectados cuyos datos aparezcan en la información solicitada, en particular su derecho fundamental a la protección de datos de carácter personal.

De esta forma, atendiendo a que la petición no se justifica en el ejercicio de un derecho o el hecho



ez duenez arrazoitzen informazioa helburu historiko, zientifiko edo estatistikoekin lortu nahi duela, eta datuak adingabeei buruzkoak direnean eragindakoen eskubideak ahalik eta ondoen bermatu beharra gailentzen denez, ezin da baimenik eman eskola kiroleko parte hartzaileen sailkapenei buruzko informazioa eskuratzeko.

Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, ere 31.1 artikuluan jasotzen du adingabeak babestea izan daitekeela informazioa eskuratzeko baimena ukatzeko arrazoietakoa bat, betiere arrazoituta eta gatazkan dauden interesak haztatu ondoren.

Informazioa paperean emango da, nahiz eta xedatzen den nagusiki eta ahal den guztietan bide elektronikoen bitartez emango dela. Izan ere, eskatzaileak eskaera formatu horretan aurkeztu du, eta ez du adierazi nola eta zein formatutan jaso nahi duen erantzuna. Eta ez du prezio publikorik ordaindu beharko, DIN A4 formatuko 20 orrialde baino gutxiago hartzen dituelako eman beharreko informazioak (Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 40/2017 Foru Dekretuaren, informazio publikoa emateko prezio publikoak onartzen dituenaren, 4.2 artikulua)

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Eskatutako informazioaren zati bat eskuratzeko baimena ematea

Bigarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du. Haren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jakinarazten den egunaren biharamunetik bi

de que tengan la condición de investigador, ni motiva el acceso en fines históricos, científicos o estadísticos, y al hecho de que prima la mayor garantía de los derechos de los afectados en caso de que los datos se refieren a menores de edad, no se puede dar acceso a la información sobre clasificaciones de los participantes en el deporte escolar.

También la Norma Foral 1/2017, de 8 febrero, de transparencia, participación ciudadana y buen gobierno del sector público del Territorio Histórico de Álava en su artículo 31.1 recoge como supuesto que pueden dar lugar a la denegación del acceso a la información, siempre de forma motivada y tras ponderar los intereses en conflicto, la protección de los menores.

La información se facilitará en formato papel porque, aunque en su defecto, se establece que se facilitará, preferentemente y siempre que sea posible, por vía electrónica, el solicitante ha presentado la solicitud en el mismo formato y no ha indicado forma y formato para la respuesta. Y estará exenta del pago de precio público porque la entrega de la información es de menos de 20 páginas de formato DIN A4 (artículo 4.2 del Decreto Foral 40/2017, del Consejo de Gobierno Foral de 3 de agosto, que aprueba los precios públicos por suministro de información pública).

Vistos los informes preceptivos.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Dar acceso parcial a la información solicitada.

Segundo.- Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses o, previa y potestativamente,



hilabete pasatu baino lehen edo, bestela, errekurtso horren aurretik, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Gardentasunaren Foru Kontseiluaren aurrean, aurreko egun beretik hilabete pasatu baino lehen.

reclamación ante el Consejo Foral de Transparencia en el plazo de un mes; en ambos casos el plazo se contará desde el día siguiente al de la notificación de la presente resolución.

Vitoria-Gasteiz,

Igone Martínez de Luna Unanue

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua
Diputada de Euskera, Cultura y Deporte

Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbígano

Euskara, Kultura eta Kirol zuzendaria
Director de Euskera, Cultura y Deporte